

## VII. Berdintxiketan bikotekako lasterketa herrikoia

2017/03/01

Zazpigarrenez BERDINTXIKETAN bikotekako lasterketa herrikoia antolatuko dugu martxoak 10erako. Aurtengoa ekitaldi berezia izango da. Izan ere, Txantxiku Ikastolak ospatuko duen 2017. urteko Kilometroak lan taldean ari diren zenbait herritarrek ere parte hartuko dute antolaketan eta ekintzaren sustapenean.

KMK 17´rekin bat eginez, hortaz, lortuko dugu oñatiar gazteenek ere bikoteka korrika egiteko aukera izatea. Horrela, haurrek parte hartzeko aukera izango dute, lehen aldiz. Oso garrantzitsua deritzogu horri; izan ere, ezinbestekoa da arlo guztietan parekidetasuna lortuko duen jendartea lortzeko gaztetxoenen heziketa egokia eta kritikoa.

Ekintza modu horretan antolatzeko, jakina, ibilbideak ezberdinak izango dira adinaren arabera, eta, ez hori bakarrik, animatzen diren oñatiar nagusiek zirkuitu berria estreinatuko dute aurtengoan. Distantziari dagokionez, berriz, bost kilometroko distantzia izango du baita VII. ekitaldiak ere.

Hona hemen egitaraua, martxoak 10erako:

- 17.00etan: umeen lasterketa: Hasiera Oñatiko Enparantzan
- 18.30etan: 16 urtetik gorakoentzat: Hasiera Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Campusean

Parte hartzea nahi izanez gero, egunean bertan ere Enpresagintzako campusean izen eman daitekeen arren, aurrez egitea gurako lukeenak ere badu aukera,

<https://sites.google.com/a/mondragon.edu/berdintxiketan/izen-ematea>  
loturan klik eginez eta izen-emate orria betez.

Animatu zaitezte errealtatearen ezinbesteko aldaketan beste urrats bat gehiago ematen, Berdintxiketan lasterketa herrikoian parte hartuta.

